EUSKALKIAK

Agoizko

Ikastetxean

Pedro Etxeberria Barbarin

EUSKALKIAK Agoizko ikastetxean

1.- Agoizko egoera

2.- Eskualdeko herriak

3.- Euskeraren aztarnak

4.- Institutuko egoera

5.- Euskalkiak lantzen dira?

6.- Euskalkiak lantzeko proiektua:

- Helburuak: orokorrak eta zehatzak
- Edukiak: kontzeptuak, prozedurak eta jarrera
- Bitartekoak
- Metodologia
- Epeak
- Jarduerak
- Ebaluazioa: ikasleena eta proiektuarena

EUSKALKIAK Agoizko ikastetxean

1.- Agoizko egoera

Agoizko Institutua eta “San Miguel” Ikastetxe Publikoa zonalde erdaldun batean kokatzen dira. Izan ere, nahiz eta orain dela gutxi arte euskara erabiltzea arrunta izan, duela 50 urte inguru desagertu zen (horren lekuko asko daude: abizenak, izengoitiak, toponimia, hiztegia...).

2.- Eskualdeko herriak

Ikasle gehienak Agoizkoak dira, baina eskualdeko herrietako ikasle batzuk ere etortzen dira: Longida, Artze, Oroz...

Herri hauetan gaztelera hitz egiten dute, gerra garaian euskara galdu baitzen:

- Oroz: duela 20 urte bazegoen norbait euskaraz hitz egiten zuena.
- Artze: oraindik zerbait irauten du (esaerak...)
- Nagore: apaiza euskaldun da.
- ...

3.- Euskararen aztarnak:

Orain dela gutxi euskaraz hitz egiten zutelako aztarna asko eta asko dugu edonon. Adibide batzuk jar ditzakegu:

- etxeen izenak: mandozain, burubeltz...
- euskal hitzak erdaraz hitz egitean: otaberak (*ollagas*), asunak (*ortigas*), alza (*aliso*), cirristos (*toboganes de tierra*), pijuri (txori mota: “*lavandera*”)...
- toponimia: Untzea, Barajitoa, Landakoa...

4.- Institutuko egoera:

- Ikasleen tipologia: - DBHn 94 ikasle ditugu.
  - Horietatik 76 agoizkoak dira eta
  - 18 eskualdekoak

- Irakasleen tipologia: irakasle gehienak euskaldunak dira (batzuk euskaldun berriak eta beste batzuk euskaldun zaharrak (herriak: Etxarri, Arbizu, Andoain, Bergara...). Lehenengo Zikloko gehienak behin betikoak dira, baina Bigarren Ziklokoak behin-behinekoak dira.

- Gurasoen tipologia: familia gehienak erdaldunak dira (salbuespen batzuk kenduta).

- Proiektu honen aldeko jarrera: Giro erdaldun honen barruan, orokorrean euskararen aldeko jarrera dute. Horregatik euskalkiak ikastea ongi ikusten da, baina beti ikuspegi orokor batetik eta euskalki konkretu bat landu gabe.

- Euskararen egoera institutuan: - D ereduan 60 ikasle
  - A ereduan 14 ikasle
  - G ereduan 21 ikasle

- Euskalkiak zonaldean: Agoizko eskualdean ez da euskaraz mintzatzen (Batua ez bada).

5.- Euskalkiak lantzen dira?

Zonaldean euskalkirik ez izatean, institutuan ez dira sistematikoki lantzen. Gure lehentasuna euskara (batua) bultzatzea da, bai institutuan bai beste arloetan.

A ereduan eta D ereduko Lehenengo Zikloan azalpen orokor bat besterik ez da lantzen.

D ereduko 3. eta 4. mailan, berriz, azalpen orokorra egin ondoren, lan taldeetan herri hauetan gelditzen diren euskararen aztarnak ikasten dituzte: hiztegia, toponimia...

6.- Euskalkiak lantzeko proiektua

Agoitzen dugun egoera aztertu ondoren, argi eta garbi gelditzen da zein den gure betebeharra eta zeri ematen diogun lehentasuna: euskara batua ikasteari eta erabiltzeari.

Dena den, euskalkiak lantzeko asmoz institutuan euskara irakasten bi irakasleekin hitz egin dut. Eta proiektua horrela izango litzateke:

Nola eman sarrera euskalkiari gure ikastetxean?

- Helburuak:

  Helburu orokorrak: DBHko ikasleek euskalkiak daudela ezagutzea.

  Helburu zehatzak: 1. eta 2. mailan euskalkiak daudela ezagutzea.
  3. eta 4. mailan euskalkiak lantzea (batez ere hurbilenak), ikuspegi orokor batetik.

- Edukiak:

  Kontzeptuak: Euskalki motak eta haien ezaugarri orokorrak.
  Agoizko eskualdean dauden euskararen aztarnak: toponimia, izengoitiak, etxeen izenak, esaerak, noiz arte hitz egiten zen euskaraz...

  Prozedurak: Euskalki motak bereiztea.
  Herri hauetako toponimia eta esaerak biltzea.

  Jarrerak: Euskararen aldaerak positiboki baloratzea.
  Euskara ikastearen eta erabiltzearen aldeko jarrera izatea.

- Bitartekoak:

  Testu liburuak, bibliografia, bideoak.

- Metodologia, epeak eta jarduerak:

  Hasieran euskalkiei buruzko azalpen orokorra (irakasle batek nahiago du Bonapartek egindako sailkapena Zuazorena baino): euskalkiak, haien ezaugarri nabarmenenak...

  Gero, 1. eta 2. mailan (taldeka edo binaka) euskalki desberdinetako testuak alderatzea eta bereiztea.

  3. eta 4. mailan, taldeka, eskualdeko herrietan informazioa bilduko dute (etxekoei eta auzokoei elkarrizketa baten bidez: toponimia, goitizenak, esaerak...) lan bat egiteko eta, gero, gelan besteei azaltzeko.

- Ebaluazioa:

  Ikasleen ebaluazioa: Prozesua irauten duen bitartean behaketaren bidez. Bukaeran, egindako lanak aztertzean eta ahozko azalpenean.

  Proiektuaren ebaluazioa: Azkenean, parte hartu dutenekin (irakasleak, ikasleak...) proiektua aztertuko dugu eta hobetzeko proposamenak kontuan hartuko ditugu hurrengo urterako.

Agoitzen, 2006ko martxoaren 15ean
Pedro Etxeberria Barbarin